

## “SOLASKIDE” PROGRAMAREN DEIALDIA

Iruñean, 2023ko irailaren 4an

Zuzendari estimatu hori:

“SOLASKIDE” programak jarraipena izanen du urritik ekainera bitarte, ahozotasunaren lanketa indartzeko helburuarekin.

“Solaskide” programa Nafarroako A, B eta D eredueta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei dago zuzenduta. Mintza laguntzailea eska dezakete **DBH 3.**, **DBH 4.** eta **Batxilergoko 1. mailetako** euskara irakasleek. Ikastetxeak berak zehaztu beharko du zein mailari ematen dion lehentasuna. Ikastaldeek **12 ikasle edo gehiago** izan behar dituzte.

**2023ko urritik abendura bitarte seina saio** eskainiko dira (saio bat astero), eta **urtarriletik maiatza bitarte, hamarna**. Solaskide programa Euskara irakasgaiari dagozkion saioetako batean egingen da. Ahozotasuna talde txikiagoetan landu ahal izateko, ikastaldearen bikoizketa egingen da kasu guztietan. Horrek esan nahi du mintza laguntzailea talde erdiarekin ariko dela eta ikastetxeko euskara irakaslea beste erdiarekin, txandaka. Laguntzaileak bere taldearen ardura izanen du soilik, ez bertako irakaslearekin ariko den beste taldearena.

Mintza praktika saio hauek Euskara Atalak kontratatutako mintza laguntzaileek emanen dituzte eta, helburua kontuan izanik, saio horiei dagokien programazio-proposamena aurkeztuko dute. Helburu hori EGA edo bestelako hizkuntza-azterketaren baten prestaketa, ahozko trebetasunak edota ahozko hizkerak lantzea izan daiteke.

Programa ikastetxeetan antolatzeko, bertako Euskara Mintegiak arduradun bat izendatuko du, koordinazio lanak egiteko bai mintza laguntzailearekin, baita Hezkuntza Departamentuko Euskara Atalarekin ere. Saioak hasi aurretik, ikastetxeko euskara irakasleak eta mintza laguntzaileak elkarren arteko koordinazioa antolatu beharko dute (zer eduki landu eta nola, noiz hasi saioak, eta abar).

Programan parte hartzeko, **Google inprimaki bidezko eskaera** ([https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSfN\\_hMxcL7s7rgtrMjTKSzD7ab\\_KyICCM3dYfFr2Q70bGuVQA/viewform](https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSfN_hMxcL7s7rgtrMjTKSzD7ab_KyICCM3dYfFr2Q70bGuVQA/viewform)) bete eta bidali behar da. **Inprimakia 2023ko irailaren 4tik irailaren 20ra arte egongo da zabalik.** Euskara Atalak urriaren hasieran jakinaraziko du onartutako eskaeren zerrenda. **Eskaera ikasturte osorako izango da.**

Eskertuko genizuke Euskara Mintegiko irakasleei helaraziko bazenie.

Adeitasunez,

Eneritz González Fernández  
Euskara Ataleko burua

## CONVOCATORIA DEL PROGRAMA “SOLASKIDE”

Pamplona, 4 de septiembre de 2023

Señor/a Director/a:

El programa SOLASKIDE, que tiene como objetivo reforzar y mejorar la expresión oral en euskera del alumnado, se realizará de octubre de 2023 a mayo de 2024.

El programa está dirigido a centros de Enseñanza Secundaria con modelos lingüísticos A, B y D. El profesorado de euskera puede solicitar auxiliares de conversación para **3º y 4º de ESO y 1º de Bachillerato**. En caso de solicitar auxiliares para más de un curso, el centro debe señalar sus prioridades, esto es, qué curso debe ser atendido si no hubiese auxiliares de conversación para todos los grupos.

**Entre octubre y diciembre de 2023** el programa Solaskide ofrecerá **seis sesiones** (una a la semana), dentro del horario habitual de la asignatura de Euskara, y **entre enero y mayo de 2024, diez**. Estas sesiones escolares serán impartidas por auxiliares de conversación contratados por la Sección de Euskera. En todas las sesiones se desdoblaron los grupos de estudiantes, de forma que el/la auxiliar de conversación trabajará la expresión oral con la mitad de la clase, mientras que la otra mitad permanecerá con el profesorado del centro, en semanas alternas. Las y los auxiliares de conversación deberán planificar y coordinar las sesiones con el profesorado del centro, de acuerdo con el objetivo de cada grupo, que puede ser la preparación de la prueba oral de EGA u otro examen oficial, y/o trabajar de manera sistemática la competencia comunicativa oral.

A fin de facilitar la organización del programa, el Departamento de Euskera del centro designará a una persona responsable, que se encargará de realizar labores de coordinación, tanto con los auxiliares de conversación como con la Sección de Euskera. Antes de comenzar el programa, deberán concretar los contenidos que se pretenden trabajar, el horario, la fecha de comienzo de las sesiones, etc. Los auxiliares de conversación se responsabilizarán del grupo que les corresponda cada semana, pero no tienen obligación de proporcionar materiales ni hacer propuestas para el alumnado que permanezca con el profesorado del centro.

Para participar en el programa es necesario **completar este formulario Google** ([https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSfN\\_hMxcL7s7rgtrMjTKSzD7ab\\_KyICCM3dYfFr2Q70bGuVQA/viewform](https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSfN_hMxcL7s7rgtrMjTKSzD7ab_KyICCM3dYfFr2Q70bGuVQA/viewform)). El formulario estará abierto desde el **4 hasta 20 de septiembre de 2023**. La Sección de Euskera comunicará a principios de octubre qué peticiones serán atendidas. **La petición será para todo el curso escolar.**

Le agradeceríamos que hiciese llegar esta carta a los profesores del Departamento de Euskera.  
Atentamente,

Eneritz González Fernández  
Jefa de la Sección de Euskera